

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: BERTAKO PRODUKTUAK MERKATURATZEKO ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2023. URTEA

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionallean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Hilabete hasierako larunbateko udal merkatua tokiko produktuekin sustatzeko laguntzak arautzea.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Ustiategi bakoitzeko onuradun bakarra izan ahalko da. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da honako baldintza bereziak betetzen dituen:

-Hilean behin lehen larunbatean izaten den azokara baserri-produktuak saltzera etortzen dena eta honako baldintzak betetzen dituen:

- a) Fruta eta barazki salmentetan, garaian garaiko produktuak eskainiko dira. Gutxienez: 3 produktu.
- b) Bestelako produktuetan ez da kopuru minimorik ezarriko, hau da: gazta, ezia, ogia...
- c) Seihilekoan, gutxienez 4 larunbatetan saldu behar dute. Horren jarraipena Udaleko teknikari batek egingo du.
- d) Udal Ogasunarekiko , Foru Aldundiko Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Ekoizle edo artisau bakoitzak azokan parte hartutako larunbat bakoitzaren truke 50€ jasoko ditu.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Epea: Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik Aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2023-11-30ean amaituko da.

Modua: Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: <http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala> edo Udalaren erregistroan.

Aurkeztu beharreko agiria: Agiri hau erantsi beharko zaio dirulaguntzak eskuratzeko eskabideari: NAren fotokopia.